

Gaur

10:30. Andre Maria Zuriaren jaietako pilota txapelketa, Foru plazako pilotalekuan.
11:00. Eskularen azoka, Carmelo Bernaola ibilbidean.
18:00. Zeledonen jaitsiera, Andre Maria Zuriaren plazan.
18:30. Erraldoi, buruhandi, zaldi eta txoten konpartsa, San Prudentzio kaletik hasita.
19:00. Laukote Maranarekin dantzaldia, Florida parkean.
19:15. Udai segizioa bezperatara joatea, Musika Bandak; txistulari bandak; erraldoi, buruhandi, zaldi eta txoten konpartsa; eta gaita jotzaileek lagunduta.
19:30. Andre Maria Zuriaren omenezko bezpera handiak, San Migel elizan.
20:30. Larrain dantza eta Txulalari, Udai Folklore Akademiako gaiteroekin, Aihotz plazan.
21:00. Zoko arabiarra, Francisco Juan Alala plazan.
21:30. Irekiera ekitaldia eta Txosnisaria, unibertsitate guneko karpa nagusian.
22:00. Rukula taldea, txosnen gunean.
22:00. Farolen Arrosarioko prozesioa, Zapatarri kaletik abiatuta.
23:30. Zezensuzkoa, Olagibel kalean.
00:00. Aurora & The Betrayers, txosna gunean.
00:00. La Raiz, Foruen plazan.
00:00. Biotzatarrak eta Indarra fanfareak.
00:30. Vulcano Show Orkestra, Plaza Berrian.
02:00. The Soulbriker Company, txosnen gunean.

rritx eta Porrotxan *Iriren lagunak* ikuskizuna; eta edozeinek parte hartzeko herri kirolak.

Jaietako egun handi horien ostean zer gertatuko den, ordea, ez daki Elosegik. «Denok galdetzen dugu ea beherkada handia izango den asteburuaren ostean, baina ezingo dugu jakin iritsi arte». Garbi dago txosnak, beraien alde, gainbehera sailhesten saiatuko direla euren ekitaldiekin.

Susmo hori dute tabernariak; bai, behintzat, David Ruiz de Azua Virgen Blanca jaietxeko langileak. «Abuztuaren 4a eta 5a, ostirala eta larunbata izanik, gehienek egun horiek aprobetxatuko dituzte. Guk Andre Mari Zuriaren egunean izaten dugu lan gehien; gero, beherkada nabarmena izango dela uste dut, askok datozen egunak oporretara joateko baliatuko dituzte eta». Haatik, Gasteizen gelditzen direnek festaz gozatzeko jarraituko dute, eta gasteiztarren presentzia handiagoa baliatuko dute giroa hoztu ez dadin.

BERNIA
Ostirala, 2017ko abuztuaren 4a

«Blusa eta neska kuadrillak batera ateratzea nahiko nuke»

Gorka Urاران • Gasteizko alkatea

Animalien gaineko araudiaren kontraesanak aitortu ditu Urارانek, asto lasterketa debekatu eta bigantxak ahalbidetzeagatik.

Jon Rejedo Gasteiz

Ohiturak berritasun zipriztinak izango ditu, gaurtik abuztuaren 9ra arte. Lehena Zeledonen jaitsieran bertan gertatuko da: debekatu egingo dute Andre Maria Zuriaren plazan kristalezko botilak sartzea. Ez da berritasun bakarra izango, ordea. Gorka Urاران Agirre Gasteizko alkatea (Gasteiz, 1973) jaien inguruan hausnartu du.

Urteetan beiraren presentzia kontrolatzen saiatu ondoren, aurtun, Zeledonen jaitsieran eta igueran botilak debekatzea erabaki du udalak. Zergatik?

Gizartearen eskari bat izan dela uste dut. Beira egotea arrisku onartezina da. Beste aukera batzuk daude, kristalezko botilena bezain onak, bezain alaiak, arriskurik gabekoak. Hiritarrei eskatu nahiko nieke plazara ohi baino apur bat lehenago joateko, sarretan kontrolak egongo baitira.

Beste aldaketetako bat Iradier Arenaren, zezen plazaren, erabileraz izango da. Lehen aldiz, ez da animaliarik hilk. Aurrera begira, hala izango al da?

Zezenketetarako eskaintza egin genuen, baina Gasteizen ez dago zaletasun handirik. Zezenketak egin zituen azken enpresak diru galera handiak izan zituen. Horregatik, eta bakarrik horregatik, deialdia hutsik geratu zen. Udalak ez du ezer debekatu. Ordea, ez du diru publikorik jarriko zezenketarik ospatzeko. Norbaitek zezenketak egin nahi baditu, gastu guztiak ordaindu beharko ditu.

Iradier Arenarako eskaintza urte urtekoa izango da, edo kontratu luzeak egingo dituzue?

Bi urterako kontratuak eskaintzeko asmoa dugu, gutxienez. Egonkortasun apur bat eman nahi diegu bertan egingo diren

ekitaldiei. Aurtengo jaiak amaitzean, emaitza aztertu beharko dugu, baina aurtun hasi dugun bidetik jarraitu nahi dugu.

Bigantxak mantenduko dira. Ez al da kontraesanekoa, asto lasterketa debekatu bazen?

Gasteizen indarrean dagoen ordenantzak horrelako kontraesanak ditu, aitortu behar da. Aho batez onartu ziren, gainera. Hala ere, ez nituzke zezenketak eta bigantxak parekatuko. Batetik, inork ez ditu bigantxak hiltzen. Bestetik, bigantxetara joateko zaletasuna dago Gasteizen.

Azken berritasun nagusia blusa eta nesken kuadrillen arteko banaketa da. Nola bizi izan duzu?

Pena handiz. Saiatu gara bi taldeak batzen, baina ezinezkoa izan da. Blusa eta Nesken Egunean nahiko ondo ateratu zena. Espero dezagun jaietan ere hori bera gertatzea. Hala ere, nahiko nuke kuadrilla guztiak batera ateratzea; ea azkar den hori.

Alkate gisa, nola egiten diezu aurre jaietari?

Beste era batean bizi ditut. Aurretik ez nituen beste erantzukizunak ditut: dena ondo ateratzea, eraso matxistarik ez gertatzea, eragileen arteko harreman ona... Gurasoak seme-alabekin bezala nabil. Dena den, bihotza gasteiztarra dut, eta familiarekin eta lagunekin egoteko tarteak ere ateratzen ditut.

Eraso matxistak aipatu dituzu. Bigarren urtea da udalak jaietarako protokolo bat duela.

Gero eta sentsibilizazio handiagoa dago horren inguruan. Arazo larria da. Sentsibilitate asko daude gaiaren inguruan. Uler dezaket ikuspuntu ezberdinak egon daitezkeela, baina argi izan behar dugu gauza bat: Gasteizko Udalak eta alkatea eraso matxisten aurkako jarrera irmoa dute. Hiru mo-



JUANAN RUIZ / ARGAZO PRESS

dermoa gara, eta errespetuan oinarritu behar dira emakume eta gizonen arteko harremanak. Hori pentsatzen ez duen gasteiztarrik edo bisitaririk badago, hobe etxean geratzen badira.

Udaiaren protokoloak erasoen aurreko elkarretaratzek eguerdian kokatu ditu. Mugimendu feministarenak, arratsalde. Bateratzeko aukerarik?

Hori izan da gure asmoa. Batasuna lortu behar dugu. Orainxe bertan, kolektibo batzuekin, oso zaila da hori. Gai honen inguruan egiten diren urratsak positibotzat jo ditut beti, edozein kolektibok hartzen duela ere. Gure asmoa da

ea hiltzen den une bat non denok batera egon baikaitezken, eta elkarretaratze bakarra egin eraso matxisten aurka.

Nola ikusten duzu euskararen presentzia Gasteizko jaietan?

Udaletik saiatzen gara euskararen arnasmuneak zabaltzen leku askotara. Jai eremu guztietan euskarazko kontzertuak daude, ekitaldiak... Egia da euskaldunok leku zehatz batzuetara joaten gara: Aihotz plazara, Alde Zaharrera, txosnetara... Baina gure asmoa da euskara presente egon dadila bazter guztietan. Jaietan bai, baita ospakizunak ez dauden egunetan ere.

JAIETAN HERRI MUGIMENDUEKIN

ENTXO SNATU

4 | OSTIRALA
20:00 Txosnaren osteko txosna
21:30 Rukula taldearen txosna
kontzertuak

5 | LARUNBATA
PRESO TA MESSIAIRAN ESUNA
15:00 Herri dantza txosna
21:30 Txosna txosnaren osteko txosna
kontzertuak

6 | IGANDEA
ENTXO SNATU
12:00 Herri dantza txosna
13:00 Herri dantza txosna
14:30 Herri dantza txosna
17:00 Herri dantza txosna
18:30 Herri dantza txosna
kontzertuak

RUKULA
AURORA AND THE BETRAYERS
THE SOULBREAKER COMPANY

GUDA DANTZA
TXIMELETA
DJ GAUPASOUND
BIRTA JAIEN - FESTA DE LA ESPANA

SIROKA
ZE ESATEK
ESKAKETAN
DJ ELEPUNTO

WWW.AESTISTOYOGUNA.ORG